

Alemanen denboran Euskal Herri barnean

(The Basque Country during the German invasion)

Arbelbide, Xipri
Eusko Ikaskuntza
Faculté Pluridisciplinaire
29-31, cours du comte de Cabarrus
64100 - Baiona

BIBLID [1137-4454 (1997), 14; 163-168]

1939-1945 bitarteko gerran, Ipar Euskal Herria alemanek okupatua zegoen. Milaka gazte preso zeuden Alemanian. Bertako jendea Petain-en aldekoa zen: mariskalak mirespena sortzen zuen 1914-18ko gerrako gudarien artean, Verdun-eko gudua irabazletzat hartzen baitzuten. Beste batzuek, ordea, isilpean, laguntza ekartzen zioten erresistentziari, bereziki Frantziar eroritako hegazkin-gidariak eta naziek oldarturiko borrokalariak muga igaro eta Afrikako Iparaldeko indar libreekin bat egin zezaten.

Giltz-Hitzak: II Mundu Gerra. Okupazio alemana Euskal Herrian. Erresistentzia.

Durante la guerra 1939-45, el País Vasco estaba ocupado por los Alemanes. Miles de jóvenes estaban prisioneros en Alemania. Aquí la gente era petinista: el mariscal causa la admiración entre los antiguos combatientes de la guerra 1914-18, del prestigio de haber ganado la batalla de Verdun. Pero otros, en el silencio, ayudan a la resistencia, particularmente los aviadores aliados caídos en Francia y los resistentes perseguidos por los nasis, a pasar la frontera para juntarse a las fuerzas libres del Norte de África.

Palabras Clave: II Guerra Mundial. Ocupación alemana en el País Vasco. Resistencia.

Durant la guerre 1939-45, le Pays Basque Nord était occupé par les Allemands. Des milliers de jeunes étaient prisonniers en Allemagne. Ici, les gens étaient pétinistes, le maréchal jouissant auprès des anciens combattants de 14-18, du prestige d'avoir gagné la bataille de Verdun. Mais d'autres, dans le silence, aidaient la résistance, particulièrement en aidant les aviateurs alliés tombés en France et les résistants poursuivis par les nazis à passer la frontière pour rejoindre les forces libres en Afrique du Nord.

Mots Clés: II Guerre Mondiale. Occupation allemande dans le Pays Basque. Résistance.

Alemanetaz daukadan lehen oroitzapena: haur tipia nintzelarik, side-car bat sartu zen Heletako plazan 2 Alemanekin eta lasterka joan nintzen etxera ustez eta hilen ninduten. Gero egon ziren gure plazan hogoi bat tanka, autoxenillak eta horrelako, gain gainetik interesatu baigintuzten behin ere ikusiak ez genituen tresna berri horiek, gu haur tipiak. Josteta artzen ginen tiroka ar eta uzten zituzten dullekin.

Entzutez ezagutzen nintuen jadanik Alemanak. Preso bazen gure etxan altxatua izana zen gazte bat. Aratseko otoitza egitean bazen beti xede bat Domingo tipiarentzat eta berriak amari igortzen zizkion... Behin faturrak eman zidan gutun bat. Monsieur Arbelbide eskapatu, maison Bizkaia hatxeman, Helette inen berriz.

Handik eta zenbeit denboraren buruan beste bat: M. Arbelbide igor, maison Bizkaia buzola, Helette lumineuse. Eta amak erosi zuen delako buzola. Okinaren etxera joan ginen gordetzeko molderik hoberena zoin zen: morroko baten barnean ala erreximetaren barnean.

Presonerrentzat paketak egiten baitziren, oroit naiz eskolan izanik esku ukaldi bat emaiten. Uste dut adan melatuak zirela dotzenaka eman behar hamabost bat sartzen nituen: ene paketetan, gaixo presoner haientzat ez zela sobera pentsaturik.

Eta egun batez jin zen gure Domingo tipia, bere ihesa kausiturik hirugarren entseguan. Alemanak berriz jin baitziren Heletara, idortzen ari ziren xurikita batzu ebatsi zituen. Ez beharrez, bainan herraz. Oroit naiz Aleman guziak lerroan ikusirik plazan beren paketajarekin: ohoina zoin zen jakin nahiz ari zitezkeen...

Beste bi Heletarrek xantza gutiago izan zuten. Alemanian preso izanki eta ihesi etorririk herrira. Norbeitek salatu zuen Heletan zirela eta emazteak eraman zizkieten preso, Biarritzera. Batek bere burua agertu zuen eta berriz eraman zuten. Bestea ez zen agertu, eta emaztea libratu zuten halere. Dena den, norbeitek salatuak zituen.

Denbora haietako oroitzapena ere eskolan ikasia ginuen "maréchal nous voilà" kantua. Nik dakitela, Heletar guziak Pétainen aldekoak ziren; jaun ertorra, nolaz ez! Verdunen izana zen. Bi eskoletako irakasleak ere bai, dudarik gabe, kantua ikasi genuenaz gain.

Orduan dut ere entzun lehen aldikotz "terrorista" hitza: makizarrak ziren, atentatuak egiten zituztenak, bainan, han nonbeit, urrun.

Alemanak joan zirelarik, jakin nuen erreziztentzia izan zela nonbeit. Bazirela De Gaulekin joan ziren Frantsesak. Bainan ez nuen horrelako nehor ezagutzen. Hemen gaindi Petinistak zirela jendeak, et ez zela erreziztentziarik ere entzuten zen. Noizbeit jakin nuen, Belokeko fraile batzu preso eramanak izan zirela. Eta hortan fini. Ez zen espantu egitekorik.

TOTTE BONNET

Joan den urtean, liberazionearen 50 urteak zirela eta irratan zerbeit egin behar zela pentsaturik ibili naiz orduko lekuko zenbeiten gibeletik. Ez naiz oroit nork eman zidan Hazparneko Totte Bonneten izena. Hemendik ihesi joanik De Gaule-kin egina zuela gerla. "Zenbeit arrado badiuk dudarik gabe", pentsatu nuen. Eta hona non Ttottek ateratzen dauz-tan Hazparneko gerlari ohien paperrak. Baziren 200 bat presoner, 17 hilak, herri guzietan baziren bezela. Hala gertaturik. Ez hautua eginik.

Bainan baziren ere 35, STO ez joateko, Todd liñaren fortifikazioneak egitera itsaso bazterrean, mugaz bestaldera ihes egin zutenak: horietan 32 Marokara joan zirenak, gerla egiteko. Beste 9 baziren deportatuak izanak eta horietarik 8 kontzentrazio kanpoetan hilak. 17

baziren jende pasan ari izanak, hauetarik 4 deportazioan hil horietarik. Biga Alemanek Hazparnen hilak. Konduak egin. 62tan gara; 62 Hazpandar beraz, makian ez baziren ere, molde bat edo bestez Alemanen kontra oldartu zirenak.

Aitortuko dizuet, opinione txarra nuela Hazparneko herriaz, ez dakit xuxen zer gatik. Menturaz bera pasatzailea izana zen Armand Bidart entzunik behin, hitz erdika bezela erraten, Hazpandarretaz ez zela balentria egiterik. Bainan egin ditu karkulak: 5.500 Hazpandarretan, 60 gaztek, gisa bat edo beste Alemanen kontrako hautua egin dute, heldu da %1. Orduan 42 miliun Frantses baitzen, heldu liteke %1ekin, 420.000 Frantses behar litezkeela gauza bera egin luketenak. Ez dut uste horrelakorik izan den.

JEAN PIERRE CASSIN

Eta hola joan naiz oraino bizi den Jean Pierre Cassin-en ikusetara Zelai gain hartan. Leizetako Bordan gelditu zen Hartzamenditik hurbil, ihesi joan eta, gero jende pasan ari izan zen; Rouart, Detchart eta Apeztegi emaiten zizkiotela pasatu behar zituen jendeak, bizpahiru, bospasei aldi bakotz, nola gerta. Iluntxetik argizirrintera behar zuten bidea egiteko oinez.

Aldi bat Mikaela Leizetakobordako etxekanderearekin edo Leontxio nagusiarekin joan zen puska keta Elizondora, zenbeit orenetan, oinez. Leizetakobordara itzuli eta egundainokotan, gau hartan berean, Hazparnera. Aitortu dit, tira bazuela Hazparnera, emaztegaia han utzia baitzuen, bainan halere, karkula ezazue zenbat kilometro heldu den oinez.

Behin takoiekin zen neska bat izan zuten eta mendian ezin kurrituz, Apeztegi bizkarrez eraman behar izan zuen. Beste behin, jadanik muga pasatua zutelarik tirokatu zituen bera mugaz haraindian zen Aleman batek. Berekin zen, oraino zaharretxean bizi den Jan Battitt Lahirigoienen ondo ondoan, harri batetan pindarra egin zuen bala batek.

Bi medela baditu etxean, ez daki xuxen zergatik ez eta nork emanak dizkion: bat "réfractaire" medela eta bestea pasatzen ari izan zelakotz emanak, irakurtu ahal izan dutanaz. Hau bezela sare batean ari zirenek, ez zuten deus galdetzen pasatzen zituzten jendeari, ez nor ziren, ez dirurik. Hastean dirua bazuten Judu zenbeit baldin bazen, gero, ihesi johan ziren gaztek ez zuten dirurik: abiatzean hartua baldin bazuten, tturrinduak izanak ziren honara gabe. Batzuk pasatzaileari utzi diote oroitzpenetan ordulari bat edo gabardina bat, hau ere gauza arraroa denbora haietan

RUFINO

Mugatik hurbilago zen Rufino Jauregi, Kanbon. Honi Jandarmeriako liotonant batek galdetu zion jende pasan artzea. Bere etxetik 200 metretan zituen Gestapoak. Rufinok baditu 606 pasatuak. Jenden xeka joaiten zen Ahurtira: gau berean beraz Kanbo-Hazparne-Kanbo: airez heldu da 32 kilometra. Xendra bidetarik ez dut karkulatu baina ziharek ikus zenbat gehiago ditekeen. Aise gehiago.

Bere etxean egoiten ziren egunaz Ahurtitik ekarri jendeak, ase bere gain. Oroit, denak kartan zirela denbora haietan. Bera lanean, nehor ez zedien jelos izan gaua kanpoan pasatua zuela. "Vous M. Jauregi, vous êtes un travailleur infatigable, et pourtant les Français sont fainéants" erran zion behin baino gehiagotan Gestapo buruak. Ondoko gauean, egundainokotan, mugaz bestaldera bere jendeekin, Jaureikobordara Urdazubin edo Borkatxeborda, Ihartetxeborda edo Lezekobordara Baztanen. Eta etxera itzul, goizean lanari lotzeko.

Bidea egitea ez zen aski. Artean, gunen minberetan egin behar zuen espiungoa: jendeak nonbeir utzi, aintzinago joan bidea libre zen ikusteko, jende bila etorri gibelera eta aintzina joan haiekin.

Rufino ere tirokatua izana da, eta tiroen ondotik zakurra igorri zioten gainera Alemanek. Egur batekin buruan jo zuen eta zakurra ihesi joan zen. Geroztik Rufinok uste du, gauaz, zakurrak ez direla egunaz bezain azkar.

Galdetu diogu zer gatik ari izan zen jende pasan batere ez delarik Frantsesa bera eta erran digu Francori ihesi jin zelarik Oihartzunetik honara, berak ere ongi etorria izan zuela.

JOSEPH DOURITCAGUE

Itsasun bizi den beste pasatzaile bat Joseph Duritzague, Mondarrain eta Hartzamen-diren artean, kasko batean, Toki onean beraz. Hazparneko merkatuan 'bere aferentzat' harremanetan zen norbeitek galdetu zion lehen aldikotz 6 gizon eramaitea. Otsaila zen, gaua luze eta gau batez egin zuten bidea. Baina egunak laburrago zirelarik, etapa egiten zuten bere etxen. Gehienetan lñarra beste Itsasuar batekin ibiltzen zen.

Behin 8 gizon bazituelarik selauruan, Aleman aintzindari bat jin zen arroltze erostera eta izitu ziren pentsatzen duzuen bezela. Tattola bat egin zuten ondoko oihanean, han pasatzen zutela eguna gero, gauaren beha egon behar zutenek.

Beste behin izan ziren Lizarrague Urkoiko arotzak erran tokira arratseko 10etako norbeiten bila. Horma zen eta gau guzia han pasatu zuten beha, hormatiak, izotzak bazter guziak zirituak zituela, goizeko bostak arte. Gau hartan eramana zuten Lizarrague Alemanek: iduriz, pasatu behar zituenak ez ziren ez Ingles, ez Amerikanok, baina Alemanak.

Duritzague-k ez du sekulan pasatu bere aintzinekoek igorri ez zioten norbeit: nor zeukan eskutan segurtamena bazuen. Salbu aldi bat. Baina hontan bazekien nor zuen, Dunat jenerala zen, Baigorritik pasatzera entseatzin ari zelarik Alemanek hartua, ihesi joana eta Itsasun zuen arreba baten gana etorria. Behin ere ez du norbeit ikusi gure jenerala bezin izitua.

Itsasun 12 izan dira medelastatuak jende pasan ari izanik. Medelak izan ez dituztenak bestalde. Itsasukoak ziren ere Iribarne eta Elizetxe andere kolonela.

JEAN PIERRE ZUGARRAMURDI

Jean Pierre Zugarramurdik Ezpeletarra 17 urtetan hasi zen jende pasan, 1940ko hazaroan, Bernatets Kanboarrak galdeturik. Lehen bidaia, Uztaritza seminarioetik eta Urdazubiko Jaurekobordara.

Gero Rufinorentzat ere ari izan da. Behin, goiz batez gizonak ikusi zituen selauruan. Amari galdetu zion nor ziren. Hea ez zuenetz Rufino ikusia. Ezetz. Rufinok ekarriak zituela, ganberan izan zitzaiola eta akort zela erran. Baina gau hartan hain zitekeen akitua Zugarramurdi non, lotarik eman baitzion errepostua Rufinori.

Behin emazte beltz bat ekarri zioten. Nor duk hau? Ba! Hau ez duk ageriko gauaz. Joan zuen Borkaxenebordara. Eta han gure emazteak, heian bibliotekarik bazenetz!

Zugarramurdik ez du behin ere medela bihirik izan ez baitzen "réseau" horietarik batetan.

Zer gatik ari izan zen jende pasan galdetu diogu. Herra, erran digu. Donibane Lohizunen ikusia zuela Alemanek egin sarekada bat eta gero izigarriko herra izan zuela haien kontra.

PIARRA INTXAUZPE

Ozkitzeko ostatuko nagusia da Piarra Intxauzpe, sortzez Domintxindarra. Honek denak eginak ditu. Lehenik gerla. Preso eraman zuten Alemaniara, ihesi jin zen honara eta jende pasan hasi. Gerla aintzin Bordalen zen eta auzoko farmazienaren adiskide, elgarrekin ari baitziren errugbian. Honek zion galdetu ez ote zituen artetan zenbeit jende pasatzen ahal bestaldera, kontrabandan artzen zela errana baitzion lehenago. "Castille" sarea zen.

Jendeak hartzen zituen edo Heraustako geltokian eta Itsasun gaindi joaten ziren, Pokorenarekin. Edo Puyoo, edo Donapaleuko geltokian, eta orduan Arnegin gaindi pasatzen ziren. Piarraren lana beraz, jendeak muga ondora hubiltzea.

Behin Alemanak ohartu ziren, geltokian jautsi jendek ez zutela batere hemengo akzenta. Zerbaitetaz mesfidatu eta paperrak ongi ikertu: faltsuak ziren. Zirikatu eta Bordaleko farmazienera joan ziren; hontarik, Donapaleura eta Piarra oihan hatxeman zuten igande arratsalde batez, aintzineko gaua Itsasun pasatua baitzuen.

Buckenwaldera eraman zuten. Han eta inguruko kanpoetan egon da, Dora, Elrich eta beste, gerla bururatu arte. Errusoa ikasi du han, Errusoa baitzuten elgarren arteko mintzaira. Hatxemanen dituzue ere Polonesa badakitenak, Baionako komertzialdegiko "école des langues" horretan pasatu gabe.

Berrogoi eta zenbeit jende pasatu ditu sei hilabetez, 1942ko abendoan hasi eta 43ko ekainean gelditu baitzuten.

Badira beste Euskaldunak ere Dachau, Buckenwald, Auchwitz eta hor gaindi ibiliak eta hilak. Bi apezek idatzi dituzte beren oroitzapenak, Grégoire Joanateguy Benditanoak eta Harignordoquy Ezpeletako erretor ohiak. Bainan ez dira publikatuak.

J.P. Heguy Heletarrak ere han bururatua du bere preso denobora, berak ez daki xuxen zendako. Pentsatzen du kusi bati igorri zion gutun baten ondorioa dela, bainan uste bakarrik.

MADDI VIELA

Lehutzen Maddi Viela ikusi dugu, azken aldikotz ospitalean sartu baino bi aste lehenago. Bere etxean, mutila zen pasan ari. Beskoiztar bat, Calabrais deitzen zutena Beñat Xobadiidegi. Eta etxeko andereak zituen etxean atxikitzen eta asetzen gauaren begira zeudelarik. 54 pasatu dira bere etxean. Egun bat, biga edo hiru pasatzen zituzten hor. Bainan delako Calabrais-k biltzen zion nonbaitik haragia.

Behin, hegazkinetako 7 soldado bazirelarik salan, atean ttan ttan ttan. Idekitzen du. Bi Aleman !!! "Madame, vous n'avez pas oeufs". Bina arroltze eman eta. "C'est combien? -C'est rien pour vous, monsieur -Vous bon madame, vous bon." -eta bere senarrari "Emozute bedera baso arno." Pentsa benedikatu zutenetz Alemanek!

Eisenhowerek berak izenpetu diploma bat badu Maddi Vielak. Batere jakin gabean "Alfa" deitu sarean ari zen.

Horra muga pasatzaile zenbeiten izenak. Izan dira beste ainitz.

Zer egiten zuten iheslariek muga pastu eta? Iruñara eramaten zituzten, han preso sartzen, metaturik, dotzena erdi bat gizon, normalean preso bat edo bientzat egin gelan. Gero Miranda de Ebroko akanpasia famatu hartara joaten ziren. Ttote Bonnet-ek xantza gehiago izan zuen, ondoko mainhu etxe batetara eraman baitzuten. Bizimoldea ere diferentea. 30 bat mila pasatu dira Espainian eta entzun dutanaz, 5.000 hil.

Azekenik Maroka edo Algeriara joaiten ziren. Diotenaz, Amerikanoek Francori eman ogi bihi zaku batetan truk frantses bakotxarentzat.

Harateta hautatu behar zuten norekin joan: Giraud, Leclerc ala De Lattre. Gero gerla egin dute edo Inglaterratik edo Italiatik, hautuaren arabera. Baina ez zen egiazko hautua, gehienetan ez baitzakiten noren erreximenduan sartzen ziren eta ez baitzakiten jeneralen arteko katasken berri. Frantsesekin ziren Alemanen kontra eta puntto.

Ikusten duzuen bezela, Xiberotik aparte makiarik ez bada izan Euskal Herrian, ez ditake uste gabetarik. Makiak izan balire gure mendietan, pasaiarik ez zen egiten ahalko eta pasaia guneak beharrezkoak ziren, jende pasan ariko ziren gizonak makizarrak baino baliosagoak. Nazien kontra, hemengo gaztek ez zuten zorrik ene ustez beste non nahikoeri.

Gainera erran nezake batere ez naizela segur makia guziek efikazitaterik izan duten. Alemanak tirokatu eta hil dituzte, baina Alemanen kontra zuten herra asetzeko bakarrik, horrek gero, tokiko jendeen alderat izan dituen ondorio latzekin. Zenbatek zuten beren tokia, lan karkulatu bat, gerla irabazteko estrategia orokorrean?

Hemen berean gertatuak aipatu ditugu gaur. Baliteke ere erratekorik gerla egin dutenentaz, preso egon direnetaz, akanpasia normaletan edo kontzentrazionetan, bai eta handik ihesi jin direnetaz: Badira Poloniatik ihesi etorriak, Dorre pilotaria bezela!